



Esp.zk. SUBV_CON_COMPET/2025/1

DIRULAGUNTZA-DEIALDIA, NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEAN, LGTBI

KOLEKTIBOEK PROIEKTUAK EGIN DITZATEN 2025ean

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri.** [\(2006ko 21. NAO, otsailaren 17koan, argitaratua\).](#)

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emailea:	Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Zinegotzi Ordezkaria.
3. Alor kudeatzailea:	Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Dirulaguntzak ematea honako helburu hauek dituzten proiektuak finantzatzeko 2025. urtean: batetik, lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualen berdintasuna, partaidetza eta presentzia sustatzea gizarteko, ekonomiako, kulturako eta laneko bizitzan –erabateko gizarteratzea lortze aldera–; eta bestetik, hori bultzatzeko ezagutzaren aurrerabidean, ikerketan eta azterlanen eta dokumentazioaren zabalkundean laguntzea. Proiektuek, bestalde, irabazi-asmorik gabeko Iruñeko LGTBI+ elkarte eta entitateek eginak izan behar dute eta/edo Iruñeko udal-mugartean gauzatu behar dira.

2. Deialdiaren helburua:

Gaur egungo gizartean, irizpide heteronormatiboekin bat ez datozen sexu-orientazio, genero-adierazpen edo sexu- zein genero-identitate ezberdineko pertsonen diskriminazio ugari pairatzen dituzte. Azken hamarkadetan, zalantzarik gabe, aurrerapausoak eman dira, LGTBI+ pertsonen zenbait eskubide lortu dituzte eta haien presentzia normalizatu da bizitza publikoan, baina, oraindik ere, sendo erroturik daude indarkeria eta estereotipo LGTBIfobikoak.

Diskriminazioak ezabatzea eta LGTBI+ pertsonen eskubideen defentsaren alde aritzea, horra administrazio publikoek LGTBI+ pertsonen bizitzaren esparru guztietan berdintasunean bizitzeko eskubideak aldarrikatzen dituzten mugimendu asoziatibo eta aktibistekin partekatu beharreko helburuak.

Deialdi honek laguntzeko tresna izan nahi du Udalaren esparruan, LGTBI+ elkarte eta entitateek egindako jarduketak sustatzeko. Jarduketa hauek bideraturik daude berdintasuna, askatasuna eta sexu- eta genero-dibertsitatearekiko errespetua lortzea xede duten proiektuak eta jarduerak garatzera, edozein delarik pertsonen sexu-orientazioa, genero-adierazpena eta sexu- zein genero-identitatea.

Hortaz, berdintasuna eta LGTBI+ pertsonen giza-eskubideak sustatzeko konpromisoa indartzera dator.



3. Diruz laguntzen ahal diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

Dirulaguntza modalitate bakarra ezartzen da, eta entitate eskatzaile bakoitzak proiektu bakarra gauzatzeko dirulaguntza eskuratzen ahalko du; eskatzen ahalko den gehieneko zenbatekoa 4.000 euro edo gutxiagokoa izanen da.

Dirulaguntza eskatzeko proiektuak honako helburu hauetako edozeinetan kokatu beharko dira:

1. Informatzea eta sentsibilizatzea, eskubide zibilei eta diskriminazio-ezari, gizartearen parte-hartzeari, sexu-orientazioari, genero-adierazpenari eta sexu- zein genero-identitateari buruz.
2. Berdintasunezko harreman osasungarriak sustatzea LGTBI+ pertsonen artean.
3. LGTBI+ mugimenduaren ikusgaitasuna aldarrikatzeko garrantzitsuak diren egunak sustatzea eta ospatzea.
4. LGTBI+ pertsonen hainbat esparrutan (lanean, komunikabideetan, etxebizitzan etab.) dituzten desberdintasunen, zailtasunen eta bazterkerien inguruan elkartzeko eta hausnarketa egiteko guneak bultzatu eta sustatzea.
5. Elkarbizitza bultzatzea eta haren gainean sentsibilizatzea, tresna bat izan dadin tratu-berdintasuna erabat gauzatzeko, LGTBI+ pertsonen duintasuna errespetatzeko eta diskriminazio-mota edo ekintza zein jarrera onartezin ororen aurrean babesteko.
6. Sareak sustatu eta mantentzea LGTBI+ pertsonen egoeraren gaineko ezagutza, gogoeta, jarduketa-estrategiak, esperientziak, praktika onak eta esku hartzeko tresnak partekatze aldera.
7. LGTBI+ pertsonen egoeraren gaineko diagnostikoa, azterketa eta ikusgaitasuna errazten dituzten ikerketak eta bestelako agiriak egitea eta hedatzea.
8. LGTBI+ pertsonen parte-hartzea, protagonismoa, ikusgaitasuna eta ekarpenak sustatzea gizartearen esparru guztietan.
9. LGTBI+ pertsonen asoziazionismoa bultzatzea, ahalduntzeko eta gizartean zein politikan eragiteko tresna gisara.

Agiri, publizitate, irudi zein material orotan hizkuntza inklusibo ez-sexista erabili beharko da, eta irudi baztertzailerik, estereotipo sexista eta LGTBIfobiko oro saihestu; halaber, honako balio hauek sustatuko dira: berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta estereotipatu gabeko genero-rol eta -nortasun askotarikoak.

Jarduerak ahal dela doakoak izanen dira, irekiak, eta behar bezala hedatu beharko dira (ez dira diruz lagunduko aurrez hedatu ez diren jarduerak, E apartatuan jasotako hedapen-neurriekin bat). Doakoak ez diren jarduerak zergatik ez diren doan justifikatu beharko da, eta dirulaguntza kudeatzen duen unitateak aldeztu aurretik baimendu beharko ditu. Halaber, konpentsazio-neurriren bat ezarri beharko da errenta-maila baxua dutenen parte-hartzea laguntze aldera. Jarduera horiek gauzatze aldera, entitate onuradunak idatziz egin beharko du doakoa ez den jarduera egiteko beharra justifikatzeko eskaera, betiere jarduera hori programatu eta hedatu baino lehen. Dirulaguntza kudeatzen duen unitateak baimena ematen badu bakarrik egingen da jarduera.

Jarduerak egiteko epea: 2025eko urtarilaren 1etik 2025eko abenduaren 15era.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 20.000 €

Esleitutako aurrekontu-zenbatekoa aurkeztutako proiektuen artean banatuko da. Proiektuen lehentasun-hurrenkera bat ezarriko da balorazioan erdietsitako puntuen arabera. Dirulaguntzak emanen dira gaitutako aurrekontu-kontsignazioa agortu arte, eta proiektuak dirulaguntzarik gabe geratzen ahalko dira nahiz eta 60 puntu (dirulaguntza erdietsi ahal izateko eskatutako gutxieneko puntuazioa) baino gehiago eskuratu.

Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 210 bis artikulua arabera, dirulaguntza emateko, bertan ezartzen diren betebeharrak betetzeko kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da 2025eko behin betiko aurrekontuan.

Deialdi honi esleitutako kreditua agortzen ez bada, gainerako zenbatekoa Berdintasuneko Unitatearen beste dirulaguntza batzuk, norgehiagokako araubidekoak, areagotzen ahalko ditu, baldin eta azken horiei aurrekontu-kontsignazioa agortu bazaie eta betekizunak bete arren dirulaguntzarik lortu ez duten proiektuak badaude.

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 80/23910/482090

3. Banakako gehiengo zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Modalitate bakarra: emanen den zenbatekoa 4.000 eurokoa izanen da gehienez ere. Eskatutakoaren % 100, baldin eta proiektuak 60 puntutik gora lortzen baditu (aurrekontu-kreditua agortu arte)

4. Hainbanatzeko aukera:

☐ BAI ☒ EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu:

5. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

6. Urtekoak:

Urteko arrunta:	20.000 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Onuradun izaten ahal dira dirulaguntza ematea dakarren egoeran dauden pertsonak edo entitateak, baldin eta ondoren aipatzen diren inguruabarretan badaude eta Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok eragiten ez badie, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

- Legearekin bat eratutako pertsona juridikoak izatea, eta dagokien Erregistroan izena emanda izatea eskaera aurkezteko mugaegunean, betiere indarra duten legeekin bat baldintza hori eskatzen ahal bada. Dokumentazio hori egunean eduki beharko dute.

- Irabazi-asmorik gabekoa izatea

- Egoitza soziala nahiz zerga-egoitza Iruñean edukitzea edo, diruz lagundutako programa, proiektu, jarduera edo jarduketak Iruñeko udal-mugartean egitea.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- Lankidetza hitzarmenik edo kontraturik sinaturik ez izatea Iruñeko Udalarekin dirulaguntza zer programa, proiektu, ekintza edo jardueratarako eskatu eta horretarako, eta ez jasotzea alor honen edo Iruñeko Udalaren beste edozein alorren dirulaguntzarik, jarduera horiek berak gauzatzeko.

- Dirulaguntzaren xede diren programa, proiektu, jarduera eta jarduketan helburuek deialdi honen xedearekin loturik egon beharko dute.

- Proposatutako helburuak betetzeko behar den egitura abian edukitzea, eta helburu horiek lortzeko beharrezko ibilbidea, esperientzia eta gaitasuna egiaztatzea.

- Egunean edukitzea tributuei nahiz Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak dirulaguntza ematen den unean. Iruñeko Udalak ofizioz egiaztatuko du tributu-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzari buruzkoak egunean dituztela, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du. Era berean, dirulaguntza emateko proposamena egin aurretik ofizioz egiaztatuko da ez dagoela zorretan Udalaren Diruzaintzarekin.

Berariaz honako hauek daude deialdi honetatik at:

- Pertsona fisikoak.
- Irabazi-asmoa duten enpresa eta entitateak.
- Deialdiaren xedearekin bat ez datozen programa, proiektu, jarduera edo jarduketak aurkeztu dituzten elkarteak eta/edo horiek Udalaren bestelako deialdi espezifiko batean jasotako helburuetarako badira.
- Dirulaguntzen Ordenantzaren 5. artikularekin bat, ezin izanen dira diruz lagundu herritarrei oro har irekiak ez diren programa, egitasmo, jarduera eta jarduketak, edo irizpide sexistak, arrazistak, xenofoboak eta beste edozein motatako irizpide diskriminatzailerik aplikatzen dituztenak. Gainera, diruz lagundutako jarduerak gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko ikuspegia eduki beharko dute txertaturik.

Aipatutako betekizun guztiak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira, eta mantendu diruz lagundutako jarduerak irautean duen epean.

Dirulaguntzen deialdira aurkezteko argibideak, laguntza, orientazioa edota aholkularitza behar dituzten entitateek Herritarren Partaidetzako Zentrora (Kondestable Civivoxa, Kale Nagusia 2, 2. solairua) jotzen ahal dute. Hitzordua eskatzeko telefonoa: 948 420 266. Halaber, Harrotu LGTBI zentrora jo dezakete (San Gregorio k. 28; hitzordua eskatzeko telefonoa: 948 226 326).

Dirulaguntza berezia denez, pertsona edo entitate onuradunek ez daukate zertan egiaztatu Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:



Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ SÍ ☐ NO

a) Dirulaguntzak ematearen oinarrian dagoen helburua betetzea, proiektua gauzatzea eta horretarako jokabidea hartzea. Jarduera Iruñeko udal-mugartean gauzatuko da, oro har. Proiektuak, salbuespen gisa, Iruñeko udal-mugartea gainditzen badu, Iruñeko udalerriari mesede egin beharko dio, zuzenean edo zeharka, eta entitateak behar bezala justifikatu beharko du dirulaguntza-eskaeran.

b) Behar bezalako publizitatea ematea Iruñeko Udalak osorik edo zati batean diruz lagundutako zeinahi motako programa, proiektu, jarduera edo jarduketei.

c) Iruñeko Udalari baimena eta laguntza ematea diruz lagundutako programa, proiektu, jarduera edo jarduketak hedatzen, LGTBI+ arloan iritzi publikoaren sentsibilizazioa sustatzeko xedez. Diruz lagundutako programa, proiektu, jarduera eta jarduketak ezagutarazteko prestatutako jarduketak, materialak eta hedapen- zein sentsibilizazio-kanpainak egiten diren unean bidali beharko dira lgtbi@pamplona.es helbidera, edo unitate kudeatzaileak hedapenerako eta dokumentazio-zereginetarako ezartzen duen horretara.

d) Organo emailearen aurrean justifikatzea, justifikazio-txostenak aurkeztuta, baldintzak eta betekizunak bete dituztela, bai eta diruz lagundutako programa, proiektu, jarduera edo jarduketak egin direla eta dirulaguntza zertarako izan eta helburu hori bete dutela ere.

e) Men egitea organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jarduketei, bai eta kontrol-organo eskudunek egiaztatzeke eta finantzaketa kontrolatzeko egiten ahal dituzten beste guztiei ere, betiere jarduketa horien ondorioz eskatzen dizkieten argibideak oro eman beharko dituztelarik, halakoak udal-fitxategietan jasota egon ezean.

f) Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortuz gero, horren berri ematea organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

g) Kontabilitate-liburuak, erregistro eginbidetuak eta gainerako agiriak edukitzea, behar bezala beterik eta eguneraturik entitate onuradunari kasuan-kasuan aplikatzen ahal zaizkion merkataritzako legeek eta lege sektorialek ezarritakoarekin bat.

h) Gordetzea jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak –agiri elektronikoak barne–, egiaztapen- eta kontrol-jarduketan xede izaten ahal diren neurrian.

i) Iruñeko Udalari jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabar, betekizun eta baldintzetan gertatzen diren aldaketak oro, eta, behar izanez gero, hari behar den baimena eskatzea.

j) Unitate kudeatzaileari jakinaraztea proiektua garatzen den bitartean entitate eskatzailearen nortasun juridikoan izandako aldaketen berri: estatutuak, helbidea, entitatearen legezko ordezkaria, etab.

k) Jasotako zenbatekoak itzultzea, hala deialdi honen Q) apartatuan nola Dirulaguntzei



buruzko Ordenantza Orokorrean adierazitako gainerako kasuetan.

I) Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko 5/2018 Foru Legearen 12.3 artikuluan aurreikusitakoarekin bat, onuradunek Iruñeko Udalarari eman beharko diote, honek aurretik eskatuta eta hamar eguneko epean, aipatutako legean aurreikusitako betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia.

Halaber, urtebetez 20.000 eurotik gorako laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek, edo jasotako laguntzek edo dirulaguntzek entitatearen urteko diru-sarreraren guztien % 20 gutxienez direnean, betiere gutxienez 5.000 eurora iristen badira, nahitaez eman beharko dute honako informazio hau: gobernu-, administrazio- eta zuzendaritza-organoen osaera; kargudunen zerrenda eta horien dedikazio-araubidea; kargu bakoitzeko entitateak eskuratutako diru-sari gordinak eta bestelako diru-sarrerak, kontzeptuka banakaturik (VI. eranskina), eta urteko kontuak.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea egin beharko dute dirulaguntzaren xede diren jarduerak edo proiektuak Udalak emandako finantzaketa publikoaren bidez egin direla hedatzeko. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko da komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da, gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitatean lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman den, horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 29.4 artikuluekin bat: ☐ BAI ☒ EZ
Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Aurreikusi ez diren inguruabarrak direla medio, aldaketak egiten ahalko dira proiektuan, apartatu honek ezarritako mugekin bat.

Ezin izanen dira egin honako hauek dakartzatenak:

- Aldaketak proiektuaren helburuetan.
- Aurkeztutako aurrekontuaren partidak aldatzea dakarten aldaketak, baldin eta horien batura, guztira, emandako dirulaguntzaren % 20tik gorakoa bada.

Aldaketak egitea eskatzen ahalko da, honako hauei dagokienez:

- Jarduerak: aldaketak jarduera egiteko tokian, datan, hizlarietan eta abar.
- Talde hartzaileak: jarduera zein talderi zuzenduta dagoen birdefinitzea: adinak, profilak, kopurua eta



abar.

Aldaketa horiek Iruñeko Udaleko Berdintasuneko Unitateak baloratu eta dirulaguntzaren organo emaileak baimendu beharko ditu aurrez. Aldaketa horiek egin ahal izateko, eskaera arrazoitua aurkeztu beharko zaio dirulaguntza kudeatzen duen unitateari, aldaketak justifikatzen dituzten inguruabarrak agertu eta berehala eta, betiere, aldaketak egin baino lehen.

Proiektua gauzatzean gertatzen ahal diren eta funtsezkoak ez diren gainerako gertakariak eta aldaketak, dagokien memoria txostenean jakinaraziko dira.

Aldaketak baimenduko dira, baldin eta eraginik ez badute aplikatutako balorazio-irizpideetan eta dirulaguntza emateko egintzaren norgehiagokan.

Jardueraren finantza-egiaztapen eta/edo -justifikazioaren fasean aurretik adierazitako baldintzak betetzen dituzten aldaketak bakarrik joko dira egokitzen.

Baldin eta proiektua garatzen den bitartean entitate onuradunak sartzen baditu deialdi honetan ezarritakoaren arabera aldez aurretik baimendu gabeko aldaketak, zilegi izanen da jasotako diru-kopuruak itzularaztea, osorik edo hein batean, edo, hala badagokio, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galtzea, osorik edo hein batean.

Proiektuaren barruan hainbat jarduera independente baldin badaude eta aldaketak ez badira jakinarazi eta/edo baimendu eta horietakoren bati eraginen badiote bakarrik, hori kontuan hartuko da zenbatekoa itzultzeko galdatzean.

G. ESKABIDEAK NON ETA NOIZ AURKEZTU:

1. Eskabideak aurkezteko tokia:

Eskabideak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) argitara emandako "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoendako" delako izapiderearen bidez. Izapide horrek barne hartzen ditu deialdi honen G eta T letretan aipatutako agiriak.

2. Eskabideak aurkezteko epea: eskabideak aurkezteko epea HILABETEKOA izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aitzina.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko (aurkezpen telematikorako) eskabidez, interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" izapiderako aurreikusitako jarraibideekin bat.

Ez da beharrezkoa izanen G.4) apartatuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste edozein Administraziok egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalarai baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu betekizunak betetzen, ez badira deialdi honetan ezarritako agiriak aurkezten, edo bestela, ez bazaio Iruñeko Udalarai baimenik eman agiriok egin dituen administrazioaren bidez eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean ulertuko dela eskaera



bertan behera utzi duela, betiere alde z aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako dokumentu hauek: entitatea legeekin bat eraturik dagoela egiaztatzen duen dokumentua, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen duena, eta eskabidea aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela egiaztatzen duen dokumentua.

Ez da beharrezkoa izanzen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, izapide telematikoan ezarritako jarraibideekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak horiek, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin izanzen balitu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztapenak aurkeztu beharko ditu, dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak ezartzen badu eskatzailea pertsona-talde bat izaten ahal dela, izan pertsona fisikoak, izan juridikoak (publikoak ala nortasun juridikorik gabeko pribatuak), eskabidean berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahalduz bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribatu helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. III. eranskina ☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jardura edo programa deskribatzen duena.

Honi atxikiko zaio proiektua aurkezteko inprimakia, deialdi honen IV. eranskinarekin bat (Proiektuaren memoria-inprimakia).



g) Entitate zein elkartearen lehenengo aldiz aurkeztu bada deialdi honetara, edo banku-kontuaren zenbakia aldatu bada, deialdi honen unitate kudeatzailearekin harremanetan jarri beharko du transferentzia bidez ordaintzeko eskabidearen agiria aurkezteko. Kasuan-kasuko diru-laguntza zein banku-entitatetan sartu behar den eta horren jatorrizko egiaztagiria.

h) Gauzatu beharreko proiektua edo jarduketaren behar bezala? zuzen ulertzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein agiri (grafikoak, teknikoak, finantzakoak eta bestelakoak)

i) Erantzukizunpeko adierazpena, gardentasunari buruz (VI. eranskina).

.

Modu telematikoan egiten ez diren izapideetarako, agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

Modu telematikoan egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo benetakotzat egiaztatutakoak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkeztu dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera horrek ekartzen ahal dituen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Entitate eskatzaileari edo eskatzaileei dagozkien irizpideak: 25 puntu bitarte.

- LGTBI+ elkartearen edo entitatearen izatea: 25 puntu.

- LGTBI+ elkartearen edo entitatearen izan ezean: 10 puntu bitarte:

a) LGTBI eskubideen alde lan egiteko konpromisoaren deskribapena, elkartearen edo entitatearen estatutuetan jasoa: 8 puntu.

b) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egiteko konpromisoaren deskribapena, elkartearen edo entitatearen estatutuetan jasoa: 2 puntu.

2. Proiektuari dagozkion irizpideak (75 puntu arte)

a) Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoari lotutako irizpideak: 60 puntu bitarte

- LGTBI+ pertsonen berdintasuna lortzeko helburuei buruz aurkeztutako informazioaren kalitatea eta koherentzia: proiektua zedarritzen duen ingurunearen gaineko azterlana, helburuak, egin beharreko jarduerak, parte-hartzea, espero diren emaitzak eta abar: 10 puntu bitarte.

- LGTBI+ ikuspegiaren txertatze-maila prozesu osoan zehar (egoeraren azterketa eta jorratu nahi den esparruan dauden arrakalak identifikatzea, proiektuaren oinarriak, LGTBI+ esparruaren berezko ezaugarriak aintzat hartzea proiektuaren planifikazioan eta helburuak lortzeko proposatutako jardueretan, segimenduaren zehaztapena eta ebaluazioa): 10 puntu bitarte.

- Intersektionalitatea aintzat hartzea, beste desparekotasun-ardatz batzuk kontuan hartuta: sexua, klase soziala, adina, migrazio-egoera, dibertsitate kulturala eta funtzionala, desgaitasunak, hizkuntza dibertsitatea, etab.: 10 puntu bitarte.

- Erabili beharreko baliabideen eta egin beharreko jardueren baliozkotasuna, interesa eta berritasuna (jardueren eraginkortasuna LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialean aurrera egiteko, teknologia berrien erabilera eta online gauzatzeko diseinua, bateragarritasun-zerbitzuak edukitzea...): 20 puntu bitarte.

- Aurrekontuaren proposatutako jardueretara egokitzea, aurrekontuaren garapen xehatua egitea eta deialdi honetan zehaztutako mugetara doitzea: 4 puntu bitarte.

- Gauzatu beharreko ekintzen bideragarritasuna (bitarteko teknikoak, langileak barne): 2 puntu bitarte.

- LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialean aurrera egiteko jardueretatik espero daitekeen eragina edo emaitza: 2 puntu bitarte.

- Garatu beharreko ebaluazioa, haren adierazleak, tresnak eta ebaluazio-iturriak zehaztuta: 2 puntu



bitarte.

b) Sustatu nahi den ikaskuntza eta balio-aldaketa: 13 puntu bitarte.

- LGTBI+ izaeraz gain, beste desberdintasun-ardatz batzuk kontuan hartzea: adina, klase soziala, generoa, gehingoarenak ez diren beste kulturak sartzea, egoera administratiboa, dibertsitate funtzionala, hizkuntza-aniztasuna, etab.: 3 puntu

- Berdintasunaren aldeko jokamoldeak modu aktiboan ikasten laguntzea eta gogoeta egitea LGTBI+ pertsonen arteko desparekotasunari eta horiek sorrarazten dituzten zioei buruz: 3 puntu.

- LGTBI pertsonen gizarte-partaidetza eta ikusgaitasuna erraztea: 2 puntu.

- Gazteekin lan egiteko erraztasuna ematea LGTBI+ pertsonen inguruko estereotipoak desagerrarazteari buruz: 2 puntu.

- Hausnarketari bide ematea, balio heteropatriarkalen, LGTBI+ estereotipoen eta eredu berrien ikaskuntzaren inguruan gogoeta egiteko: 3 puntu.

c) Jasangarritasun ekonomikoari, ekologikoari eta ingurumenekoari lotutako irizpideak aintzat hartzea: 2 puntu bitarte.

Ezin izanen dira dirulaguntzen onuradun izan guztira 60 puntuko balorazio globala (entitatea eta programa edo proiektua) lortzen ez duten entitateak. Ez dira baloratuko deialdiaren xedeari lotzen ez zaion proiektu edo programa batean sarturik dauden jarduketa edo jarduera solteak. Gutxienez 60 puntu erdiesten ez duten proiektuak ezetsi egingen dira.

Dirulaguntza ematea erabakitzen duen berdinketarik egonez gero, 1. irizpidean eskusiboki puntuaziorik handiena duen proiektuaren alde egingen da. Berdinketak bere horretan segituz gero, 2. irizpidearen a) letran zeinek lortu duen puntu gehiago hartuko da kontuan, eta, oraindik ere berdinduta egonez gero, 2. irizpidearen b) letran lortutako puntuazioari erreparatuko zaio, beharrezkoa bada. Berdinketak bere horretan jarraituz gero, zozketa egingen da.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da, kide hauek osatua:

Batzordeburua:	Zaloea Basabe Gutiérrez Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako zinegotzi ordezkaria
Batzordekideak:	
1.	Elían Peña Guerrero, Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorreko zuzendaria
2.	Vanesa Eguiluz González, Berdintasuneko teknikaria
3.	Pilar Mayo Falque, Berdintasuneko teknikaria
Idazkaria:	Ana M ^a Jiménez Marco, Aholkularitza Juridikotik / Ordezkoa: Aholkularitza Juridikotik izendatutako beste pertsona bat.

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat egingen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) apartatuan ezartzen diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat egingen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Baldin eta instrukzio-organoak baloratzen badu aurkeztutako eskaeraren batek hobeto erantzun diezakeela beste dirulaguntza-deialdi baten xede edo helburuei, eta deialdi horren epea oraindik amaitu gabe badago, entitate eskatzaileari eta dagokion Alorrari jakinaraziko die, entitateak hala baimenduz gero, eskaera dagokion Alorrera helarazi ahal izateko. Deialdi-aldaketa noiz egin den agirien bidez jasota geratuko da, dagozkion ondorioetarako.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea:

Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 17.4 artikuluekin bat, ebatzi eta jakinarazteko epea, gehienez ere, sei hilabetekoa izanen da.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta hauek zehaztuko dira ebazpenean berariaz: nork edo zer entitatek jasoko dituen edo dituzten dirulaguntzak, laguntzen zenbatekoak, eta, eskaerak ezetsiz gero, nor edo zer entitate diren eskatzaileak.

☒ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

☐ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta udal-webgunean argitaratuko da, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 45. artikuluko b) letran agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- Tramitzatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskabidea sartu den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- ☐ Epea kontatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta, berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsizat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Diruz laguntzen ahal diren gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek laguntzen ahalko dira diruz:

1. Zuzeneko gastuak



a) Entitatearenak ez diren hizlarien gastuak edo elkarteko plantillan egon eta jarduerak irauten duten bitartean hizlari, mintzalari, lantegigile edo haurren zaintzaren arduradun aritutakoek eragindako gastuak. Apartatu honetako faktura guztiek berariaz jaso beharko dute garatutako jarduera (prestakuntza, hitzaldia, mahai-ingurua), izenburua, data, ordu-kopurua eta aplikatutako orduko prezioa.

b) Diruz lagundutako jardueren material suntsikorrek eta publizitateak eragindako gastuak.

c) Diruz lagundutako jarduera egiteko lokalen gastua (ezin izanen du gainditu laguntza gisara jasotako guztizkoaren % 60) eta jarduera garatzeko erabilitako ekipamenduen alokairua (teknikariak, soinua eta abar).

d) Elkartearendako ekipamendu informatikoetan egindako gastuak.

Gastu hori 2023 eta 2024ko deialdietan dirulaguntza honen kargura ekipamendu informatikorik erosi ez zuten elkarrekin bakarrik aurkezten ahalko dute. Elkarte bakoitzaren gastu-muga dirulaguntzan emandako kopuruaren % 20 izanen da.

e) Bestelako gastuak (joan-etorriak, otorduak, hizlarien ostatua, eta abar). Otorduetan, diruz lagundutako gastua 20 euro izanen da menu bakoitzeko eta elkarteko pertsona bakarraren gastua onartuko da hizlariari laguntzeko, betiere hori zentzuz beharrezkoa bada. Hotel- eta gosari-gastuei dagokienez, hizlariaren gastua bakarrik lagunduko da diruz.

f) Diruz lagundutako jarduerak egin bitartean mendekotasuna duten pertsonak artatzeak eragindako gastuak (hautzaindegiak, ludotekak, adinekoen arta, etab.), muga betiere 100 euro izanen delarik talde eta monitore bakoitzeko.

g) Jarduerara bertaratzeak eragindako gastuak gizarte-bazterketako arrisku berezian dauden pertsonen kasuan (hiri barneko joan-etorriak).

2. Proiektuari lotutako zeharkako gastuak (gehienez ere dirulaguntzaren % 25 bitarte):

a) Planifikazio-, kudeaketa - eta administrazio-gastuak (gehienez ere dirulaguntzaren % 15 bitarte). Elkarteko langileen nominaren bidez edo batzarretik kanpoko pertsona batek edo kanpoko aholkularitza-enpresa batek igorritako fakturaren bidez justifikatzen ahalko dira.

b) Entitatearen lokalaren alokairua, domeinu/webguneak mantendu eta erostea, argi-, ur- eta telefono-zein internet-kontsumoak (dirulaguntzaren zenbatekoaren % 10 bitarte). Egoitzaren alokairutzat joko da, eta, hortaz, zeharkako gastutzat, faktura hilabete osoei badagokie, eta betiere lokala Iruñeko udal-mugartearen barruan badago.

Diruz laguntzen ahal diren gastuetan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

☒ BAI ☐ EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere dirulaguntzen xede izanen:

a) Entitatearen barne-funtzionamenduko jarduerak –herritarrei irekita ez daudenek– eragindako gastuak: batzarrak, bilerak edo topaketak, barne-prestakuntzako jarduerak, barne-komunikazio eta -informaziorako bideak, etab.



- b) Nominan ez dauden elkartearen zuzendaritzako pertsonen gastuak.
- c) Jardueretara joan edo horietan parte hartu duten pertsonendako lunchek, bazkari-afariek, ospakizunek, egonaldiek edo bidaiek eragindako gastuak.
- d) Iruñeko Udalaren edo Nafarroako Gobernuaren eskumenekotzat jotzen diren jarduerak.
- e) Material inbentariagarria erosi eta mantentzeak, altzariak erosteak edo lokalak egokitzeak eragindako gastuak (aipatu material informatikoa izan ezik).
- f) Jardueretara bertaratzen diren pertsonendako ekarpenak, diruz zein gauzazkoak.
- g) Gauzazko ekarpenak irakasleendako edo hizlariendako ordainketa gisara.
- h) Ekitaldi eta deialdi politikoak: manifestazioak, elkarretaratzeak, grebak eta abar.

2. Diruz laguntzen ahal diren gastuak egiteko epea: *Diruz laguntzen ahalko dira 2025eko urtarilaren 1etik abenduaren 21era bitarteko epean egindako gastuak.*

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoa: % 50

Erakunde onuradunak aurreikusten badu jardueraren gauzatze partziala adierazitako ehunekoan azpikontratatzea hirugarren pertsonekin, berariaz adierazi beharko du dirulaguntzaren proiektuaren eskaera-dokumentazioan.

Azpikontrataturako enpresak edo erakundeak lankidetzeta-betebeharrari lotuta egonen dira, deialdi honetan diruz laguntzen ahal diren gastuen izaerari eta zenbatekoari dagokienez ezarritako mugak betetzen direla behar bezala egiaztatu ahal izateko (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren (DOO) 30.6. artikulua).

Berariaz, ezin izanen dira azpikontratatu Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30.7 artikuluan jasotako pertsonak edo erakundeak.

Onuradunak inola ere ezin izanen du itunik egin honako hauekin, dirulaguntzaren xede diren jarduerak osorik edo zati batean burutzeko:

- a) Ordenantza honetako 10. artikuluan jasotako debekuren bat duten pertsona edo entitateekin.
- b) Kontratazioaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsonak edo entitateak.
- c) Eragiketaren kostu osoaren portzentaje bat kobratzen duten bitartekari edo aholkulariak, non eta ordainketa hori egindako lan edo zerbitzuaren merkatuko balioa erreferentzia hartuta justifikatzen ez den.
- d) Onuradunarekin lotura duten pertsona edo entitateekin, baldintza hauek bete ezean:
 - Kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egitea.
 - Aldez aurretik organo emailearen baimena eskuratzea.
- e) Deialdi eta programa berean dirulaguntzarik eskatu eta eskakizunak ez betetzeagatik edo behar adina puntu ez lortzeagatik dirulaguntzarik lortu ez duten pertsonak edo entitateak.

Azpikontrataturako enpresak edo erakundeak aurreko apartatuan (VIII. eranskina) deskribatutako kasu bakar batean ere ez dagoela egiaztatzen duen aitorpena aurkeztu beharko du.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

OHARRA: Onuradunarekin lotutako pertsonatzat edo erakundetzat joko da haren barruan dagoena elkartekide, federatu edo antzeko figura gisa.

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra: ☐ BAI ☒ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoak:

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Ez dira diruz lagunduko alor beraren edo Udalaren beste alor batzuen finantzaketa eskatu duten jarduerak; jarduera bakoitzean horri lotutako gastu guztiak aintzat hartuko dira.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatzen bada, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordainduko diren: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

☒ Konturako ordainketa:

☐ Ordainketa zatikatua:

☒ Ordainketa aurreratua: % 100

☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

2. Bermeak eratzea:

☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

☒ Justifikazio-kontua:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

☒ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Justifikazioa telematikoki eginen da eta diruz lagundutako jarduera dela-eta egindako gastuak oro justifikatuko dira (aurkeztutako proiektuaren kostu osoa), eta ez bakarrik Iruñeko Udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekora iritsi artekoak.

Justifikazio-kontua jarraian aipatzen diren agiriekin osatuko dute, eta haiekin batera deialdi honi atxikitako V. eranskina (Memoria-txostena proiektuaren garapenari buruz eta dagokion finantza txostenaren Excel dokumentua) aurkeztu beharko da:

a) Memoria-txostena xede horretarako diseinatutako ereduarekin bat: "Memoria-txostena, proiektuaren garapenari buruz" eta "Finantza-txostena". Eredua deialdiari atxikitako eranskinean jaso da.

b) Udalaren dirulaguntzaerabiliz egin diren material iraunkor guztien kopia (argitalpenak, ikus entzunezkoak, etab.), bai eta egindako publizitatearena ere.

c) Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda izenpetua eta ordenan zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda, ereduarekin bat.

d) Aurreko zerrenda hori egiaztatzeko, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu behar dira: fakturak, ordainagiriak, nominak, tributatuak nahiz Gizarte Segurantzako kuotak eta balio frogagarria duten bestelako dokumentuak, betiere merkataritzako trafiko juridikoan baliozkotasuna edo administrazio-eraginkortasuna baldin badute eta horien zenbatekoa emandako dirulaguntzaren kargura ordaindu bada, modu korrelatiboan ordenaturik aurreko zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera.

Egindako gastuak osagai guztiak jasotzen dituzten fakturen bitartez egiaztatuko dira, eta inongo kasutan ez da onartuko ordainagiri hutsik edo kuxako tiketik.

Fakturak indarra duten legeen arabera jaulkiko dira, haietan zehazturik faktura egin duen enpresaren izena eta IFZ, fakturaren jaulkitze-data, kontzeptua, zenbatekoa eta fakturatu diren objektuen edo kontzeptuen xehakapena, aplikatutako Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta jaulkitzen duenaren sinadura. Horiez gain, PFEZaren atxikipena eta ordainketa zehaztuko dira.

Justifikazioari dagozkion agiriak elektronikoki aurkeztu beharko dira. Dena den, unitate kudeatzaileak jatorrizko dokumentazioa eskatzen ahalko du, behar diren egiaztapenak egiteko.

e) Zeharkako gastuak justifikatzeko, gastu bakoitzaren izaerari dagozkion ziurtagiriak aurkeztuko dira (jardueraren garapen denbora osorik hartzen duten nominak, fakturak –laguntza teknikoak, argia, telefonoa eta abar–).

f) Entitatearen Iruñeko egoitzaren gastuak diruz lagundutako jarduera egiten den aldikoak izanen dira eta harekin bat etorriko dira.

g) Hartzekodunei ordaindu izana egiaztatzen duen ziurtagiria. Ordaindu izana dagokion banku-agiri bidez egiaztatu behar da, behar bezala sinatutako agiri baten bidez edo, bestela, aurkeztutako fakturak ordaindu egin direla egiaztatzen duen beste agiri bat aurkeztuz.

h). Borondatez aurkezten ahal den beste edozein agiri –idatzizkoa zein grafikoa–, finantzatutako proiektuaren funtzionamendu edo gauzatze egokia egiaztatze aldera.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukiak: ☐ BAI ☐ EZ

☐ Justifikazio-kontu erraztua.

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitate-orriak aurkeztea (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☐ Beste sistema bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Justifikazio-agiriak aurkezteko epea 2025eko abenduaren 30ean amaituko da.

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan eta apartatu honetan adierazitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoiak bat gertatzen bada, zilegi izanen da bai jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, bai berandutze-interesak galdatzea – dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

- **Esku-hartzearen esparruan zer emaitza eta jarduera egiteko konpromisoa hartu eta horiek osoki edo parte batez betetzen ez badira.**

- **Edozein zio dela medio gastuak egiten ez badira, edo horietan funtsezko aldaketak egiten badira, Iruñeko Udalak horretarako berariazko baimenik eman gabe.**

- **VI. eranskina ez aurkeztea (Erantzukizunpeko adierazpena, gardentasunari buruz).**

- **Entitate onuradunak proiektuaren gauzapenean aurrez baimendu ez diren aldaketak egiten dituenean, deialdi honen F apartatuan ezarritako baldintzekin bat.**

R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.



S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

☒ II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.

☒ III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

☒ ERANSKIN OSAGARRIAK.

IV. ERANSKINA: MEMORIA-FORMULARIOA PROIEKTUARI BURUZ

V. ERANSKINA: MEMORIA-TXOSTENA PROIEKTUAREN GARAPENARI BURUZ ETA FINANTZA-TXOSTENA (Excel dokumentua)

VI. ERANSKINA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, GARDENTASUN-BETEBEHARRARI BURUZ

VII. ERANSKINA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA 8/2021 LEGE ORGANIKOAN, HAURRAK ETA NERABEAK INDARKERIAREN AURREAN OSORIK BABESTEKOAN, ESKATUTAKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZ

VIII. ERANSKINA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ZEINETAN ESKATZAILEAK ADIERAZTEN BAITU BETETZEN DITUELA DIRULAGUNTZEI BURUZKO ORDENANTZA OROKORREAN EXIJITUTAKO AZPIKONTRATATZE-BALDINTZAK

IX. ERANSKINA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA: DIRULAGUNTZEN JUSTIFIKAZIO TELEMATIKOA

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*